



III. HELBURUAK



III.01.

HIRIGUNE HISTORIKOAREN ETA KULTUR ONDAREAREN BIRGAITZEA

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazten den bezala, EAEko hiru Lurralde Historikoetan banatutako Gune Historikoen ondarea aberatsa da. Gune horien artean, hain zuzen ere, Errenteriakoa dugu.

Hori dela eta, gure Hirigune Historikoaren babes, berrikuntza, zaharberritzea eta ondorengo kontserbazioa Erakunde Publiko eta herritar guztion erantzukizun komuna da.

Errenteriako Gune Historikoa bere garaian nolabait ere utzita egon zen baina gaur egun, Arau Subsidiarioak onartu zirenetik garatutako hainbat jarduketek ondorioz, zirkunstantziak aldatzen ari dira.

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago eremua "Kultur Ondasun" gisako deklarazio partziala jaso duela, Monumentu Multzoaren kategoriarekin (maiatzaren 7ko 10/1996 Dekretua). Hortaz, bere babes-erregimena finkatuta dago.

Azpimarratu beharra dago, era berean, eremu osoan jarduteko eta erregulatzeko arau batzuk finkatu dituen Birgaitzeko Plan Bereziaren (HHBPB) formulazioa eta onarpena. Horrela beraz, alderdirik garrantzitsuena eraikuntzaren garrantziaren identifikazio individualizatua da, eraikin guztiak kategoria batekin kalifikatzen dituen hain zuzen ere (babes berezia; babes ertaina, oinarriko babes, babesik gabe, bat ez datorrena).

HHBPBn, horrez gain, baimenduta dauden eraikuntzak birgaitzeko esku-hartzeak (eraikuntza berria, erabateko eraispena -ordezkatzeta edo berriz eraikitzea-, aldaketa sakona zabalkuntzarekin edo gabe). Honi lotuta, adierazi beharra dago HHBPB behin betiko onartu zenetik eskuratutako esperientzia kontuan hartuta komenigarria izan litekeela alderdi hauei buruzko beste hausnarketa bat egitea. Nolanahi ere, hausnarketa honek garapen-dokumentu honen aginduzko aldaketa eskatzen du.

Adierazi beharreko beste alderdi bat, erabat berrituta dagoen Hirigune Historikoaren urbanizazio-maila da.

Hala ere, Hirigune Historikoak Hiritartu eta Eraikitako Ondarea Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko uztailaren 30eko 214/1996 Dekretuaren erreferentzia-esparruan Birgaitze Bateratuko Area deklaratu bada eta "Hirigune Historikoa Birgaitzeko Laguntzen Ordenantza Erregulatzaila" onartu bada ere, biztanleek eta jabeek -oro har- legeria horren onurei heldu ahal izatea ahalbidetuko duten bidezko jarduketek dinamizazioari ez zaio erabakitasunez ekin (bidezko kudeaketa-organoaren bitartez).

Azken batean, Plan Orokorrak Hirigune Historikoan lortu nahi dituen helburuak ondokoak dira:

- Bizileku-erabilera nagusi gisa mantentzea.
- Egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea birgaitze-jarduketetarako laguntzen bidez.



- Biztanleei eta birgaitze-jarduketan sustatzaileei Hirigune Historikoa Birgaitze Bateratuko Area kalifikatu izanaren onurak bideratzea eta laguntza ematea.
- Eraikin babestuen birgaitzea lortzea.
- Jarduketak sustatuko dituen eta eremurako finantza-laguntzak bideratuko dituen kudeaketa-organo bat sortzea.

Azkenik, adierazi beharra dago Plan Orokorraren dokumentuarekin batera beren balio edo ezaugarri bereziengatik babes berezia behar duten elementuen Katalogoa egingo dela. Katalogo honetan, halaber, udal mugartean duten kokapena alde batera utzita hala merezi duten elementuak barne hartuko dira.



III.02.

HERRIGUNEA SUSPERTZEA, ESKUALDEKO KULTUR ETA MERKATARITZA ERREFERENTZIA GISA

Oro har, herriguneen suspertzeari lotutako alderdirik azpimarragarriena, merkataritza-jardueren problematikari buruzko kontsiderazio berria da (jarduera horien testuinguruaren ikuspuntutik zein beren kokapenaren ikuspuntutik). Irizpide hau, jakina, baliagarria da Errenterian eta, ondorioz, dokumentu honetan kontuan hartu da.

Alderdi honen kontsiderazioa (lurralde-eraginari dagokionez), ondoko ikuspegi hirukoitzetik egin behar da:

- Teknologia berriei, herritarrek denbora antolatzeko duten modu berriari eta hiri modernoan bizi-ikuspegi ezberdinari lotutako sektore ekonomiko gisa.
- Hiri-ehunen beharrezko orekaren enkoadratzean funtsezko elementua den premia biziko zerbitzu publiko bati lotutako ekipamendu komunitario gisa.
- Zentraltasunari berari lotutako jarduera gisa.

Horrela beraz, udalerriko Herrigunearen merkataritza-suspertzeari dagokionez HAPO honetan planteatzen den estrategia –funtsezko helburu gisa bilatzen dena–, lotutako hainbat eragiketarekin zerikusia du. Eragiketak ondokoak dira:

- Merkataritza tradizionalaren mantentzean oinarritutako estrategia-multzoa, Hirigune Historikoa eta bere eragin-zona (hots, Biteri kalearen eta Nafarroa Etorbidearen artean kokatuta dagoena gutxi gorabehera) berritzeko eta birgaitzeko politikekin batera.
- Merkataritza Suspertzeko Plan Berezian (MSPB) kontuan hartutako eragiketen garapena.
- Erabilera mistoen sustapena, Erdialdearen bizileku-dimentsioaren zaintza ziurtatuta eta biztanleen beharrei lehentasunez erantzutea ahalbidetuta.
- Oinez edo bizikletaz doazen hurbilerraztasuna garraio publikoaren zerbitzu egoki baten bidez hobetzeko ekintzen sustapena, merkataritza-zentraltasunaren sustapenean eta sendotzean ingurumenaren hobekuntza eta peatonalizazioa lortzeko estrategiak beharrezkoak diren aparkaleku-plazen aurreikuspenari lotuz.



III.03. BIZILEKU-POLITIKA

III.03.01. Alderdi orokorrak

Etxebizitzaren arloko Presako Neurriak eta Hirigintza Planeamenduko zein Kudeaketako Tresnak Izapidetzeko Neurriei buruzko ekainaren 30eko 17/1994 Legearen arrazoi-azalpenean adierazten denez, *“Azken urteotan Euskal Autonomi Elkarteko etxebizitzak garestitu izana arazo larria eta orokorra da udal guztietan. Hori dela eta, herritarren ehuneko handi batek, gaur egun, ezin eskura dezake etxebizitzarik”*. Egoera hau dela eta, botere publikoek bidezko neurriak hartu behar dituzte pertsona orok etxebizitza duin baterako duen eskubidea gauzatu ahal izateko.

Errenteriako udalerrian bizileku-garapena garrantzitsua izan da Planeamendu Arau Subsidiarioak behin betiko onartu zirenetik (obra-lizentzien emakiden arabera, 1.296 etxebizitza berri izan dira) baina, hala ere, udalerria ez dago aipatutako problematikaz kanpo.

Halaber, udalerriko bizileku-eremu finkatu jakin batzuek ondare eraiki garrantzitsu bat dutela ikusi da. Bereziki, eraikinen behe-oinetan kokatuta dagoena eta hirugarren sektoreko erabilerarako aurreikusita egonik ere joera berrien ondorioz gaur egun jarduerarik ez duena aipatu behar dugu. Eremu hauek, beraz, aprobetxatu gabeko eraikuntza-aktiboak dira eta, gainera, degradazio-irudi bat ematen diote gehienetan hiri-paisaiari.

Hori dela eta, hainbat lokalei bizileku-erabilera emanaz gero lokal hauen egoera aldatuko litzatekeela hartu da kontuan. Zentzu honetan, kontuan izan behar dira azkenaldi honetan hainbat partikularrek Udalean egin dituzten kontsulta ugariak gai honi buruzko informazioa jaso ahal izateko.

Horretarako, Udal Osoko Bilkurak 2001eko uztailaren 27an hartutako erabakiaren arabera, *“Bizitegitarako hiri lurreko hainbat esparru finkatutan kokatzen diren lokaletan hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko jardunak arautzen dituen Ordenantza”* behin betiko onartu da.

Hala eta guztiz ere, Arau Subsidiarioetan ahalbidetzen den bizileku-ahalmenak ez die inola ere erantzuten herritarren beharrei eta eskakizunei eta, beraz, ez die erantzuten Plan Orokor honen formulazio-esparruan landutako Demografiari eta Etxebizitzari buruzko Azterlanaren ondorioei.

Bestalde, ezinbestekoa da etxebizitzaren arloko premiazko neurriei eta hirigintza planeamenduko zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriei buruzko ekainaren 30eko 17/1994 Legean ezarritako zehaztapenak kontuan hartzea eta, bereziki, babes publikoko etxebizitza-estandarren finkapena. Ondorioz, hiri-lurzoruan, burutzapen-unitateen bidez burutu beharreko barne-erreformarako jarduketa bateratuetan aurreikusitako bizileku-gutzizkoaren %20 gutxienez babes ofizialeko etxebizitzako erregimenera adskribituta



aurreikusi beharko da. Parametro honen gutxieneko balioa %65ekoa izango da urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorua kasuan.

Nolanahi ere, hiri-lurzuari lotutako legezko eskakizun horri dagokionez, 142/1997 Dekretuaren 2. artikulua kontuan hartu behar da. Bertan "barne-erreformarako eragiketa bateratu" kontzeptua argitzen da eta, udalerrri honen kasuan, aurreikusitako etxebizitza-gehikuntza 75 alekoa edo hortik gorakoa edota, zehaztapenik ezean, bizilekurako sabai eraikigarriko 7.500 m²-koa edo hortik gorakoa den kasuari dagokio.

III.03.02. Egungo bizileku-ahalmena Arau Subsidiarioen arabera

I. tomoan (Hirigintza-informazioa) adierazten denez, udalerrri honetako etorkizuneko etxebizitza-parkea askotariko faktoreek baldintzatuko dute eta ondoko alderdien arabera izango da:

- A.- Errenteriako biztanleria 2010. urtean.
- B. Pertsona bakarreko familia-unitateen portzentajea.
- C. Okupatutako etxebizitza bakoitzeko familia-unitatearen batez besteko tamaina.

Hori guztia kontuan hartuta ondorioztatu denez:

1. Urteek aurrera egin ahala, pertsona bakarreko etxebizitzaren kopuruak gora egingo du.
2. Etxebizitza bakoitzeko familia-unitatearen batez besteko tamainak behera egiten jarraituko du.

I. tomoan (Hirigintza-informazioa), halaber, gaur egungo bizileku-ahalmena xehetasunez deskribatzen da. Bertan adierazten denez, jarduketa batzuen eraginkortasuna zalantzarikoa da kudeaketa-ahalmena zalantzarikoa delako.

Funtsezko ondorio gisa, udalerrriaren egungo biztanle-mailari eusteko etxebizitza-kopuruaren gehikuntza bat aurreikusi behar dela esan daiteke (1.300 etxebizitza ingurukoa). Hala ere, aurreko biztanle-kopuruak berreskuratzea ahalbidetuko duten beharrezko hirigintza-baliabideak lortu nahi dira eta, beraz, aipatutako etxebizitza-kopuruak handiagoa izan beharko du.

III.03.03. Bizileku-lurzorua kuantifikazioa LAAren arabera

EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak, bere 7. artikuluan ("Bizileku-kuantifikazioa udal-planeamenduan"), ondokoa ezartzen du:



“Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak onartu arte, etxebizitzetarako ahalmena zenbatzeko, Arztepideei dagokien agiriaren 1. Eranskinean zehazten diren irizpide, adierazle eta koefizienteei jarraituko die udal planeamenduak”.

Zehaztapen horren arabera, udalerrri honetako bizileku-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko ondoko kalkulu-orria egin dezakegu:

Errenteriako bizileku-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko kalkulu-orria		
1. osagaia. LURRALDE-EREDUAREN INPLIKAZIOAK		
Hazkunde hautakorra: 0		0
Habitat alternatiboa: 0		0
OEO 96= 12.476	Bigarren Bizilekua OEO (BBK-BBK 91)	0
1. osagaia, guztira		0
2. osagaia: HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA		
PO 96= 39.203	P86=43.676	FBT(1996): 3,15
PH=PO (1+UHT) ⁿ = 19.203 [1+(0,00107)] ⁸ = 35.957 (Biztanleria erregresiboa)		HD = PH – PO (Biztanleria erregresiboa, PH=PO 96) HD = 0
Etxebizitza-beharra HD/FBT (n) 0/3,15		0
2. osagaia, guztira		0
3. osagaia: FAMILIA-EGITURAREN ALDAKETA		
Etxebizitza berrien beharra PO 96/FBT (8) – OEO= (39.203/2,85) – 12.476		
3. osagaia, guztira		1.279
4. osagaia: ESKAINTZAREN ZURRUNTASUNAREN ZUZENKETA		
ZK = 0,12	(OEO+O2+O3) ZK = (12.476 + 0 + 1.279) 0,12	
4. osagaia, guztira		1.651
5. osagaia: BIGARREN BIZILEKUA		
BBK = 1	O2 + O3 + O4 = 0 + 1.279 + 1.375	
(O2 + O3 + O4) (BBK – 1) 0,5 = (2.654) 0 = 0		
5. osagaia, guztira		0
PLANEAMENDUAKAK ESKAINI BEHARREKO ETXEBIZITZEN GEHIENEN KOPURUA		
O1 + O2 + O3 + O4 + O5 0 + 0 + 1.279 + 1.651 + 0	GUZTIRA	2.930

III.03.04. Etxebizitzak lurzoru ez-urbanizagarrian

EAEko Lurralde Antolamendurako Arztepideak behin betiko onartzen dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak, bere 10. artikuluan “Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari atxikita ez dagoen famili bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren erabilpena”, ondokoa ezartzen du:



1. *Hirigarri ez den lurrean debekatuta dago familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren erabilpena, nekazaritza eta abeltzaintzaren baliabideak ustiatzeari atxikita daudela, fidagarritasunez, egiaztatzen den kasuetan izan ezik.*
2. *Familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuen eskaria baserialdean, erabilpen hori jasotzeko hirigintzaren aldetik sailkatuta eta kalifikatuta dauden baserrigune edo eremuetara jo behar da.*



III.04. HIRI-ERABERRITZEA

III.04.01. Errepide Nazionalaren (N-1) desafekzioa. MSPB eta URBAN Programak

Arau Subsidiarioetan aurreikusitako Planeamendu Irizpideen eta Helburu Orokorren artean, "Bide-arintzea" atalean adierazitakoa azpimarratu beharra dago. Bertan adierazten denez, *"Orain arte egindako azterlan guztiak bat datoz Errenteria Nafarroa Etorbidetik trafikoa ahalik eta gehien desbideratuko duen Saihesbide batez hornitzeko behararekin"*. Bestalde, *"Auzoen eraberritzea" atalean proposamen nagusi gisa adierazten denak ondokoa lortzeko helburua du: "Iztietaren integrazio handiagoa hirigunearen gainerako zatiarekin, errepide nazionalaren trafiko-intentsitatea murriztearen eta errepide nazionala bide zibiko gisa urbanizatzearen ondorioz."*

Arau Subsidiarioetan, halaber, aurreikusitako Komunikazioen Sistema Orokorren deskribapenean eta, zehazki, Hiriarteko Sareari dagokionez, ondokoa aipatzen da Saihesbidea eraikitzeko beharra azpimarratzean: *"Jarduketa honen epe laburrerako burutzapena oso garrantzitsua da Errenteriako hiri-eraberritzearen zati handi baterako"*.

Gaur egun, 1999an Saihesbidea eraiki eta zerbitzuan jarri ondoren, Nafarroa Etorbidea berrantolatzeke eta bere erabilera berregokitzeko helburuarekin Arau Subsidiarioetan aurreikusitako jarduketa hasita dago. Horretarako, Hiribilduaren hirigune nagusia osatzen duen sarea egituratzen duen kale honi buruzko aurreproiektu bat idatzi zen eta, bertan, Nafarroa Etorbidearen erabateko berrurbanizazioa koordinatuta eta koherentziaz egin ahal izateko hainbat fase zehazten dira. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak sustatutako MSPB programan barne hartuta dauden berrantolaketa-lan hauek hasita daude dagoeneko, bai eta Biteri, Frantzisko Gazkue, Segundo Izpizua eta beste hainbat kaleren azaleko tratamenduaren hobekuntza lortzeko lanak ere (lan hauetan lehentasuna oinezkoen erabilerari emango zaio, ibilgailuen trafikoari eman orde).

Zentzu honetan, adierazi beharra dago jarduketa hori finantzaketa publikoarekin egiten ari dela udal-baliabideen bitartez eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren diru-laguntzarekin. Horrez gain, eskualde-mailako bizikletentzako bide-sare bat gaineratzeko aurreikuspena barne hartzen duen jarduketa honen zati bat Europako Batasunak Ogasun Ministerioaren bitartez finantzatzen duen hiri-eraberritzerako programan -URBAN Programan- barne hartuko da.

III.04.02. IZARTU Programa

Errenteriako udalerrria Pasaiaiko Badiaren ingurunean kokatuta dago eta arazo ugari ditu hirigintza, ekonomia eta gizarte arloan. Egoera honek, datxezkion zailtasunak ez ezik, desoreka handia dakar hurbileko beste eremu batzuekiko, Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkunde ekonomikoko egungo prozesuan agertzen den erreferentziazko enkoadratzearen arabera.



Zentzu honetan ulertu behar da “Babesgabeko zonei buruzko lurralde-azterlanean” Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak 2000ko martxoaren 21ean egindako bilkuran onartutako dokumentua, Errenteria “Babesgabeko eskualdeen” artean barne hartu izana.

Fenomeno hau argi eta garbi ikus daiteke lurralde-esparruan eta, gure Autonomia Erkidegoaren barruan, portaera ezberdinak agertzen dira ziklo ekonomikoaren hedapen-fasean zein uzkurdu-fasean. Hala ere, area berean errepikatzen diren egoeren heterogeneotasuna eta arazo ekonomikorik handienak dituzten zonetan diskriminazio positiboko jarduketak egiteko beharra direla eta, komeni da jarduketa horiek diseinatzeko udal-eskala erabiltzea.

Gainera, ezin da ahaztu gainbehera ekonomikoko egoerak gizarte eta ingurumen narriadura bat dakarrela egoera ekonomiko negatiboa handiagoa deneko lekuetan. Horrela, hazkunde ekonomikoan parte-hartzea txikiagoa izateaz gain, askotariko fenomenoak sortzen dira: hirigintza-narriadura, gizarte-zatiketa (langabezia-maila altuak, gazteen delinkuentzia, gizarte-bazterketa eta abar), ingurumenaren narriadura, udalerriko gainerako zonekiko isolamendua eta urruntasuna eta abar.

Arazo hau arintzeko eta udalerrri hau bezalako babesgabeko areekiko diskriminazio positiboko irizpideak erabiltzeko testuinguruan, zentzuzkoa da EAEko hiri-zona degradatuen eraberritze sozioekonomikoa sustatzea hainbat jarduketa bateraturen bidez. Jarduketa hauek, zona horien berariazko arazo guztiei batera erantzungo diete lurralde, ekonomia eta gizarte kohesioa lortzeko helburuarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan hirialdeak biziberritzeko erabateko jardunei laguntzeko neurriak ezartzen dituen azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuak ezarritako esparruaren barruan laguntzak emateko deialdia publiko egin zuen Ogasun eta Herri Administrazioako Sailburuaren 2001eko urtarrilaren 9ko Aginduan (2001eko urtarrilaren 10eko EHAA) aurkeztu zen erregulazioak lehen erantzuna eman zion arestian adierazitakoari.

Hori dela eta, Errenteriako udalerrria, bere hirigunearen zona jakin batean (izaera homogenea eta jarraitasun geografikoa duen Pontika/Arramendiko Ibarrean) arestian aipatutako alderdiak konpontzeko aukerez jakitun izanik, 2001eko urtarrilaren 9ko Aginduan ezarritako laguntzak jasotzeko hautagai gisa aurkeztu zen eta, horretarako, Pontika/Arramendiko Ibarrean Hiri Suspertzerako Programa Bateratua egin zuen.

2001/2005eko Hiri Suspertzerako Programa Bateratu horretan, arestian esan bezala jarraitasun geografikoa duen zona homogenea bati lotutako jarduketa-multzo bat planteatu zen eta banaka baina, jakina, elkarren artean lotuta, hainbat jarduketa-mota deskribatzen dira “hiri-berrikuntzari”, “ingurumen-kalitateari”, “kementsuei eta enpleguari” eta “mugikortasun jasangarriari” lotutako hainbat alderdiri erantzuteko. Hain zuzen ere, hori lortzeko baldintzatuko du hirigintza-area degradatu horretarako konponbidea (babes ofizialeko etxebizitzaren bizileku-eremu bat, industria-lurzoru berria, espazio libreen zuzkidurak eta enplegua eta prestakuntza sortzen duten beste jarduera batzuk ezartzearen bidez).



Era honetan, Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren aurreikuspenen arabera, hiri-paisaia eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eskakizunei erantzutea lortuko da.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordearen 2001eko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez, diru-laguntza jasotzeko moduko inbertsio bat onartu zen (IZARTU Programan barne hartua) eta diru-laguntza ez-itzulgarri bat eman zen, ondoko jarduketak egiteko hain zuzen ere:

- Udal Alondegia berria
- Jose Migel Barandiaran Parkea
- Arramendi Pasealekua
- Arramendiko Parkea
- Hegoaldeko bidea (A fasea)

III.04.03. Auzoen birgaitzea.

Plan Orokorraren helburuei dagokienez, alderdi garrantzitsuenetako bat auzoen birgaitzea da (urbanizazio orokorrari zein eraikuntzei dagokienez).

Hortaz, Hirigune Historikoak jaso duen Birgaitze Bateratuko Arearen deklarazioaz gain, Eusko Jaurlaritzak Iztietan, Galtzaraborda eta Gaztaño auzoen inguruan hasitako espedienteak hartu beharko dira kontuan.

Honi lotuta, Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 26ko 308/2000 Dekretuan (2000ko abenduaren 30eko EHAA), Birgaitze Bateratuko Arearen (BBA) deklarazioa lortzeko prozedura arautzen da (6. artikulua: Birgaitze Bateratuko Arearen definizioa; 7. artikulua: Birgaitze Plan Bereziak; 8. artikulua: Birgaitze Bateratuko Area deklaratzeko espedientearen hasiera; eta hurrengoak). Dekretu horretan bertan ondokoa ezartzen da:

“Halaber, Birgaitze Integratuko Area deklaratu ahal izango dira beren ezaugarri arkitektoniko eta hirigintzakoak balio nabarmenekoak ez izan arren ondare urbanizatu eta eraikiaren degradazio-egoera dela eta hala eskatzen duten orain gutxi sortutako egoitzarako hiri-multzoak, area degradatutzat jo daitezkeenak”.

Dekretuaren ondorioetarako, 308/2000 Dekretuaren 6.2 artikuluan adierazten diren ekonomia eta gizarte degradazioko eta hirigintza eta arkitektura degradazioko baldintzen multzoa betetzen dituen hartzen da Area Degradatutzat.



Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumeneko Sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduak (00.12.30eko EHAA), babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzuaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuaren 16. artikulua garatzen du bere 1.d) atalean (ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketara babesgarriari buruzkoa). Agindu horretan ondoko alderdiak arautzen dira:

- * Baldintza orokorrak
- * Birgaitze-jarduketa babestuen titularrak
- * Jarduketaren eremua
- * Aurrekontu babesgarria
- * Finantza-neurriak eskatzeko baldintzak
- * Obren epea
- * Mailegua
- * Diru-laguntzak
- * Espedientearen izapideak
- * Administrazio-ebazpena

Mailegua. Etxebizitzak eta merkataritza-lokalak birgaitzeko jarduketaren titularrek, kreditu-estabenezimenduek ematen dituzten mailegu gaituak lortu ahal izango dituzte, betiere dagokion administrazio-organoaren ebazpen bidez hala onartuta badago. Birgaitzerako mailegu gaituek ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- Kredituaren kopurua: aurrekontu babestuaren guztizkora irits daiteke.
- Amortizazio-epea: 5 urtetik 15era bitartekoa izan daiteke; gabealdia 2 urtekoa izango da gehienez ere.
- Mailegua hipoteka bidez edota kreditu-erakundeek mailegariei exijitutako bermeen bidez bermatuko da.

Diru-laguntza. Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren bitartez, itzuli beharrik gabeko diru-laguntza pertsonal bat emango du birgaitze-jarduketa babestuetarako. Diru-laguntza hori aurrekontu babesgarriaren, obra-motaren eta titularraren errenta-mailen eta familia-osaeraren arabera izango da. Diru-laguntzak, halaber, birgaitze-motaren arabera finkatuko dira. Diru-laguntzak kalkulatzeko, 2000ko abenduaren 26ko Aginduan zehazten diren portzentajeak aplikatuko dira.



Nolanahi ere, diru-laguntzen gehieneko muga 4.507,59 eurokoa izango da 1, 2 eta 3. obretan, eta 3.005,06 eurokoa 4. obran. Obrak ondokoak dira:

1, 2 eta 3. obrak: eraikinaren egitura eta eraikuntza, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak eta etxebizitzak eta hauen sarbideak minusbaliatuentzako indarrean dagoen araudiari egokitzeko obrak.

4. obrak: eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera eraikuntza onaren printzipioei egokitzeko obrak.

Birgaitze Bateratua egiteko 4. obretarako lortutako diru-laguntza beste kontzeptu batzuegatik lortutakoari gaineratuko zaio guztizko diru-laguntza zenbatesteko.

Nolanahi ere, adierazi beharra dago, "Hirigune Historikoa birgaitzeko" helburuari dagokion atalean bezalaxe, beharrezkoa dela jarduketak sustatuko dituen eta eremuko finantza-laguntzak bideratuko dituen kudeaketa-organo batez hornitzea.

III.04.04. Oiartzun ibaiaren ertzaren eraberritzea

Oiartzun ibaia, udal-mugarte honetan, bi legeria sektoriali lotuta dago: Kosta Legea eta Uren Legea.

Edonola ere, ibaiaren ertzaren hiri-eraberritzea lortu nahi da oinezkoek eta bizikletek erabili ahal izateko eta, horrela, hiri-paisaiaren ebazpen egokia ziurtatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da Papresa, SAko Arean dagoen sei metroko pasaera-zona libre uztea eta, ondoren, orain arte garatu diren soluzioekin bat etorriko den urbanizazio-tratamendu bat aplikatzea.

Nolanahi ere, ibaiaren ardatzak udalerriko hiri-ehuna egituratuko duten elementuetako bat izan beharko du. Zentzu honetan, "Batzokiaren" eraikina eraitsi ondoren (jarduketa hau Arau Subsidiarioetan aurreikusita dago), Errenteria berrituaren irudi berriaren alderdirik aipagarriena Gamon Zumardiaren eta Agirre Lehendakaria Plazaren erabateko integrazioa izango da.

Horrez gain, CLHko instalazioak beren kokalekutik kenduta, egokitasun handiko hiri-pieza estrategiko bat lortu ahal izango da.

III.04.05. Hurbilerraztasuna hobetzea

EAEan hurbilerraztasuna sustatzeko abenduaren 4/97 Legeak eta 2000ko abenduaren 12ko Dekretu arautzaileak, hiri-ingurunearen, espazio publikoen, eraikinen, garraiabideen eta komunikazio-sistemen hurbilerraztasuna bermatzea dute helburu, pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun mugatua, komunikazio-zailtasunak edo edozein muga psikiko edo



sentsorial –aldi baterakoa edo iraunkorra– dituzten pertsonen autonomiaz erabili eta gozatu ahal izan dezaten.

Era berean, botere publikoek legea eraginkortasunez aplikatzeko beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartu beharra eta, hala badagokio, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko laguntza teknikoak erabili beharra ezartzen da.

Errenterian, udalerriko minusbaliatuen kolektiboak (MINER) emandako informazioaren arabera, Udalaren jarduketak horrela sailka daitezke:

- Hiri-lurzoruko urbanizazio berrietan, araudia betetzen da eta urritu-mota ororentzako hurbilerraztasuna errazten da.
- Semaforoak: egokitutakoak gutxi direla esan daiteke.
- Urbanizazio zaharretan bide publikoa egokitzen ari da (espaloiak beheratuz eta abar).
- Establezimendu pribatuei dagokienez (dendak, zinemak eta abar), lizentzia berrietan hurbilerraztasunari buruzko araudia betetzen bada ere, problematika bat agertzen da establezimendurik zaharretan. Honi lotuta, MINER kolektiboa lanean ari da Udalari problematika honen diagnostiko bat aurkezteko. Bertan, hurbilerraztasun-arazoak dituzten establezimendu pribatuak zehaztuko dira.
- Aparkaleku-plazak: legeria betetzen da.
- Udal-eraikinak: legeria betetzen da.

Bestalde, Hurbilerraztasunerako Jarduketa Plana gauzatzeko, Plan hori idazteko eskaera bat aurkeztu zen Foru Aldundiaren aurrean eta honek, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren (IMSERSO), Minusbaliotasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko eta Gizarteratzeko ONCE Fundazioaren eta Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren artean izenpetutako lankidetzak-hitzarmenaren esparruan, udalerriko honetako Hurbilerraztasun Plana aintzat hartuko du.



III.05. EKIPAMENDUAK

Garatu beharreko jarduketak, antzemandako hutsuneak betetzera zuzendu beharko dira. Hutsune horiek gaur egun oso nabarmenak ez badira ere, urteek aurrera egin ahala eta Errenteria bizileku-hiri gisa finkatzen den neurrian irtenbidea esplizituki eskatuko da.

Eskola-plazen ikuspuntutik, adierazi beharra dago Hiribilduak egun duen joera demografikoak eskola-plaza gehiago eskatuko dituela epe ertainean (hamarkadaren bigarren erdialdean) lehen aldiz eskolara joaten direnentzat. Bost urtetik beherako biztanleria ia bi puntutan igoko da (%3,21etik %5,2ra) eta hamar urtetik beherakoak berriz, egungo %6,59tik %9,8ra pasako dira. Gaur egun, haurtzaindegi-plazen eskaria eskaintza baino handiagoa da.

Kulturaren ikuspuntutik, Errenteriako Hiribilduko Kulturgunean aurreikusitako ekipamenduen erabateko garapena planteatzen da. Hala ere, kontuan izan behar da bere bizileku-izaera berretsi edo finkatuko duen udalerrri batek bere eskala demografikoari jarraiki egungo eskaintza eta, epe ertainera, aurreikusitakoa osatuko duten ekipamenduak eskaini behar dituela. Hortaz, antzemandako gabezia bat gainditu beharra dago, Hiribilduaren historiari eta, udalerrriak duen industria-tradizioaren erreferentziaz baliatuta, "Paperaren fabrikazioari" lotuta egon litekeen Museo batena hain zuzen ere.

Udalerrriak zinema-areto bakarra du eta, ondorioz, merkataritza suspertzeko planen barruan espazio mistoak ezartzeko aukera kontuan hartu beharko da (multizinemak dituzten merkataritza-espazioak eta ludikoak).

Egungo "kultur eta aisialdi gabezien" artean, Natura Interpretatzeko Zentro batena azpimarratu behar da, batez ere udal-mugartearen zati handi bat (San Markos eta bere ingurunea) Lau Haizetako eremuan eta beste zati bat, handiagoa, Aiako Harriako Parke Naturalean barne hartuta daudela kontuan hartuta.

Liburutegia ez dago toki egokian kokatuta; izan ere, ez du garatzeko aukerarik eta, ondorioz, erabiltzaileei ezin die zerbitzu berririk eskaini, baldintza egokietan bederen. Zerbitzu berri horiek (zibernetikoek, ikus-entzunezkoek...), oso ezaugarri zehatzak izango dituen eraikin bat planteatzea eskatzen dute.

Gazteek ez dute berariazko lekurik beren jarduerak garatu ahal izateko eta, zenbaitetan, leku desegokietan garatzen dituztenez gero, ondoeza sortzen dute ingurunean. Halaxe gertatzen da musika talde eta kolektiboen jardueren kasuan, ez baitute lokal egokirik beren jarduerak garatu ahal izateko.

Dena dela, adierazi beharra dago zenbait auzotan gazteentzako lokalak badirela Beraunen, Gabierrotan, Kaputxinoetan eta Agustinetan.



Bestalde, aldizka edo inoizka egiten diren jarduera jakin batzuek ez dute leku egokirik behar bezala garatzeko. Halaxe gertatzen da urtero antolatzen den Eskulangintza Azokarekin edo lokal egokirik izanez gero antola litezkeen beste batzuekin. Egungo Azokaren etorkizuneko plangintzak gabezia horiei irtenbidea eman liezaieke.

Gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten ekipamenduei dagokienez, funtsezko bi hutsune ditu udalerriak, Hiribilduko auzo jakin batzuetan erretiratuen edo emakumeen elkarteetarako espazio-beharraren kaltetan izan gabe (alderdi hau ere ongi aztertu beharko da hutsune horiei kolektibo horien eskariaren arabera erantzuteko).

Lehen hutsunea, haurtzaindegi-kopuru urriari dagokiona da. Arestian esan bezala, arazo honek bere ondorioak ditu zerbitzu hau duten ikastetxeetan. Udalerrian haurtzaindegi bakarra dago eta herritarrei egiten dien eskaintza haurtzaindegi pribatuena baino txikiagoa da. Emakumeen lana gero eta garrantzitsuagoa den gizarte honetan jaiotza-tasak zertxobait gora eginez gero, haurtzaindegiak ezinbestekoak izango dira "lana / seme-alaba txikiak" dualtasunak dakartzan arazoei irtenbidea emateko. Horrez gain, egungo eskaintza ez zaie egokitzen zerbitzu hau eskatzen dutenen beharrei eta, ondorioz, tamaina handiko arazo baten aurrean gaude. Gerta daiteke halako zerbitzuak eskain ditzaketen udalerririk mugakideetarako desplazamendu bat hastea.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da egungo haurtzaindegia udalerriarren benetako beharrei egokitzea (kopuruari eta ordutegiari dagokienez) eta erabilera hauetarako espazio gehiago planteatzea.

Konpondu beharreko bigarren hutsunea, hirugarren adinekoentzako egoitzei dagokiena da. Izan ere, Gerontologikoz gain, duela hamarkada bat baino lehenago sortu zen zaharrentzako egoitza bat besterik ez dago. Egoitza hau inauguratu zenean, udalerrian 65 urte edo gehiagoko biztanleria %10,26koa zen baina, gaur egun, portzentaje hori ia bikoiztu egin da eta, beraz, eskariak gora egiten jarraituko du. Horrela, egungo eskaintza nahikoa ez bada, epe ertain eta luzean are eskasagoa izango da.

Eta Zaharren Egoitzak aipatzen direnean, egonaldi iraunkorreko egoitzak ez ezik Eguneko Zentroak edo bizi-itxaropen handiagoaren ondorioz nabarmen gehitzen ari diren zaharren problematika arintzeko duten beste batzuk ere kontuan hartu behar dira. Errenterian, datozen urteotan, mendeko pertsonen kopuruak gehikuntza esanguratsua izango du eta zerbitzuen eta prestazioen beharra ere oso garrantzitsua izango da maila guztietan (zentroetako plaza finkoak zein geriatriari lotutako profesionalak).



III.06.

LURZORU-AURREIKUSPENA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO

III.06.01. Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Planaren aurreikuspenak

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (9.4 epigrafean), Ekonomia Jardueretarako Lurzorua antolatzeko politikarako orientabideak ezartzen dira. Zehazki xedatzen denez, Lurraldearen Zatik Planek finkatuko dituzte area funtzional bakoitzeko ekonomia-jardueretarako lurzoru-beharrak. Horretarako, LAAen lurralde-eredua eta Industria Politikako Plan Markoa hartuko dira kontuan eta ondoko edukiak garatuko dira:

- a) Areako ekonomia-jardueretarako lurzoru-eskariari buruzko azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- b) Area Funtzionaleko ekonomia-jardueretarako lurzoruari buruzko azterketa eta diagnostiko xehatua.
- c) Lurzoru berriaren eskaintza-eragiketa nagusien proposamena, kokapena eta ezaugarriak gutxi gorabehera adierazita.
- d) Egungo industria kokalekuz aldatzeko posibilitateei buruzko azterketa (ezaugarriek hala aholkatzen badute).
- e) Proposatutako ekonomia-jardueretarako areen tipologiei eta gainerako baldintzei buruzko gomendioak (udal-planeamenduak zehaztu eta garatu beharrekoak).

LAAetan xedatzen denez, LZPak idatzi arte udal-planeamendua (eta, hala badagokio, planeamendu sektoriala) EHLABak aplikatzen dituen ekonomia-jardueretarako lurzorua kuantifikatzeko irizpideei lotuko zaie.

Era berean, Udal Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 26an, Errenteriako udal-mugartean Egiburu eta Lanternetako Eskualde Eskalako Poligonoen ezarpena aurreikusteko iradokizuna aurkeztea erabaki zuen (Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Planaren (LAP) Aurrelaburpenerako iradokizun gisa).

Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrelaburpenean, ekonomia-jardueretarako lurzoru-erakundearen aprobetxamendu-parametroen eta zuzkidura-estandarren sistematizazio bat egiten da.

Horrela, ekonomia-jardueretarako lurzoru-sektore berrien eraikuntza-aprobetxamendua eta zuzkidura-ekipamendua arautzeko oinarriko parametro batzuk esleitu ondoren, indize hauek sektorearen guztizko azalera gordinari egokitu ordez erabilgarri dauden plataforma garbien benetako azalerrari egokitzeko komenigarritasuna planteatzen da.



Nahitaez bete beharreko ondoko ratio generikoak hartzea proposatzen da:

• Zuzkiduretarako erreserba:

- Sektorearen guztizko azalera gordinaren %15aren erreserba (gutxienez) espazio libreen eta ekipamenduen tokiko zuzkidura publikoetarako.

• Gehieneko Fraikuntza Aprobetxamendua:

- Planta-okupazioko gehieneko azalaren %65 (gehienez) eta gehieneko sabai-azalera eraikigarriaren %95 (gehienez), Sektorearen planeamendu partzialean lurzati eraikigari gisa definitutako plataforma horizontal guztien azalera garbiarekiko.

• Interes Publiko eta Sozialeko Zerbitzuetarako gutxieneko eraikuntza-zuzkidura:

- %3ko sabai eraikigarriko azalera (gutxienez), titulartasun publiko zein pribatuko enpresentzako zerbitzuen zuzkidura-ekipamendu batera zuzenduko da (bulegoak, ostalaritza, enpresa laguntzaileak, zerbitzu komunak eta abar).

• Gutxieneko aparkaleku-zuzkidura:

- Plaza 1 sabai eraikiko 100 m²-ko. Plazen %20 gutxienez sarbide publikoko bide-sarean ipiniko dira.

III.06.02. Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kuantifikazioa LAAen arabera

Arestian adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak, bere 8. artikuluan ("Jarduera Ekonomikoetarako lurraldearen zenbatzea"), ondokoa ezartzen du:

"Lurraldearen Antolamendurako kasuan kasuko Zatiko Planak onartu arte, udal planeamenduak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak jarduera ekonomikoetarako den lurraldearen zenbatekoari ezartzen ari dizkion Irizpideak bete beharko ditu".

III.06.03. Beste alderdi batzuk

Jarduera ekonomikoaren ikuspegitik, Hiribilduaren garapenak hiri-bilbean barne hartu dituen lantegi mekaniko edo antzeko guztiei leku bat emateko edo egoitza finkatzeko industria-lurzoru bat aurreikusi beharko da. Halaber, komeni da hirugarren sektoreko jarduerak ezarri ahal izateko lurzoru bilatzeko aukerari buruz gogoeta egitea, era honetan bizileku-hiriaren eredu horrek aurreko urteetan ez bezala sor ditzakeen sektorearen berezko jardueri (aholkularitza-enpresei adibidez) lotutako langileen "populazio-finkapena" lor dadin.

Merkataritzaren ikuspegitik, oinarrizko zerbitzuen nagusitasuna nabaria da: elikagai eta edari dende eta produktu ez-industrialen txikizkako merkataritzak gehiengo osatzen dute. Udalerriaren merkataritza-zaharkitzea gainditu behar da eta, horretarako,



merkataritza-egitura berriak gizarte-aztura berrietara egokitu beharko dira (horrek egungo zentraltasun-zonak finkatzea dakar). Zentzu honetan, gaur egun gainbeheran dauden udalerriko merkataritza-zentroen balioa handitzeko formularik egokiena merkataritza suspertzeko planen garapena da.

Hori dela eta, Merkataritza Suspertzeko Planak irudi aproposak dira udalerraren erdigunean merkataritza-jarduera bat sortzeko; eta are gehiago une honetan, N-1 errepidea Nafarroa Etorbidetik kentzeak auzo hau Hiribilduaren Erdialdeko hiri jarraitutzat har dezakegun horretan integratzea ekarriko baitu.

III.06.04. Pasaiaiko Portuko Portu Espazioen Erabilera Plana

1999ko martxoan, Pasaiaiko Portu Agintaritzak portu-espazioen Erabilera Plan bat egin zuen eta, portu-espazio horien zati bat, udal-mugarte honetan dago.

Plan horretan, horrela justifikatzen da Planaren idazkuntza:

“Indarrean dagoen Portuen Legeak ondokoa dio bere 15. artikuluaen 1 eta 2. ataletan:

- 1. atala. *“Sustapen Ministerioak zerbitzu-zona bat mugatuko du Estatuaren eskumeneko portuetan. Zerbitzu-zona horretan, jarduerak egiteko beharrezkoak diren lur eta ur azalerak, jarduera horien zeregin osagarrietarako azalerak eta portu-jarduera garatzeko aukera bermatuko duten erreserba-espazioak barne hartuko dira”.*
- 2. atala. *“Portu Agintaritzak proposatuta, zerbitzu-zonaren mugaketa portu-espazioen erabilera-plan baten bitartez egingo da. Plan horrek, portuak dituen zonarako aurreikusitako erabilerak eta hauen behar edo komenigarritasunaren justifikazioa barne hartuko ditu”.*

Portu Espazioen Erabilera Plana idazteko oinarriko arrazoia, alde batetik, zerbitzu-zonaren mugaketa ahalbidetzeko Legea betetzea da (aldaketa gaur egun beharrezkoa da portu-area batzuetan).

Bestetik, Pasaiaiko Portuko oinarriko jarduerak (merkataritzari, arrantzari eta ontzi-konponketari lotutako jarduerak) bilakatzen ari dira eta beharrezkoa da behar berriak egokitzea eta jardueretarako espazioak harmonizatzea.

Bigarren alderdi hau bereziki beharrezkoa da Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria (portuko zerbitzu-zona arrantza eta kirol espazioetatik banatzeari buruzkoa) bete ahal izateko.

Aurreko guztia dela eta, Portu Espazioen Erabilera Planaren idazkuntza beharrezkotzat eta premiazkotzat hartzen da, Itsas eta Lehorreko Zerbitzu Zona onartzeko giltza baita. Gainera, Zerbitzu Zona hori funtsezkoa da Zerbitzu Zonaren Antolamendurako Plan Berezia bezalako



hirigintza-tresna bat garatzeko. Azkenik, Erabilera Plana ezinbestekoa da Arrantza Espazioen Banantzeari buruzko espedienteari hasiera emateko.

Proposamen zehatzei dagokienez, adierazi beharra dago Errenterian kokatuta dauden Portuko eremuak "Antxoko Merkataritza Area" (9. Molinaoko kaia; 10. Kaputxinoetako kaia; 11. Petrolio kaia; 12. Ro-ro kaia) eta "Lezoko Merkataritza Area" (Lezo-3 kaia) izeneko areetakoak direla. Eremu hauetako bakoitzerako adierazten diren aurreikuspenak jarraian azalduko direnak dira.

Antxoko Merkataritza Area.

Alderdi fisikoak

Antxoko Merkataritza Areak Pasaiako Badiaren Hegoaldeko ia ertz osoa hartzen du.

Mendebaldean Herrerako Arrantza eta Industria Areekin egiten du muga eta Ekialdean berriz, Oiartzun ibaiarekin. Ibai honek, gainera, Antxoko Merkataritza Area eta lezoko Merkataritza Area bereizten ditu. Area honen hegoaldean eta hiri-ingurunetik bereizita, errepide eta trenbide sareak ditugu.

Area honen barruan ondoko kaiak daude: Herrerakoa (2. tarteunea, 136 m-koa), Erlojukoa, Aurreratua, Buenavistakoa, Molinaokoa, Kaputxinoetakoa, Petrolio eta Ro/Ro.

Portuan azalerarik handiena duen Area da. Horrela banatuta dago:

Azalera eraikia:	31.980 m ²
Eraiki gabeko azalera:	253.787 m ²
Guztizko azalera:	285.767 m ²

Areako kaienarekin bat datorren kosta-lerroaren guztizko luzera, 2.236 metrokoa da.

Sakonera 5 metrotik 12ra bitartekoa izan daiteke. Dena dela, kaiaren luzeraren %70ean 10 m-ko sakonera dago eta nahikoa da portuan sar daitezkeen ontzi-mota guztietarako.

Batez besteko zabalera teorikoa, guztizko azalera (285.767 m²) kaien luzerarekin (2.236 m) zatituta lortzen dena, 125 metro ingurukoa da, hots, txiki samarra salgaien manipulazioa eta, batez ere, biltegiatzea errendimendu osoz egiteko. Zabalera txikiaren eragozpen hau, neurri batean, egonaldi laburrekin eta salgaiak bizkor jasotzearen bidez saihestu daiteke.

Jarraian, Area hau osatzen duen kai bakoitzaren ezaugarriak garrantzitsuenak gaineratuko ditugu, kaien plano batekin batera. Azpimarratu beharra dago Ro-Ro kaiari automobiletarako eta Ro-Ro trafikorako zabaldegia azalera adskribitu zaiola.



Erlojuko kaia

- **Kokapena:** Herrerako kaiaren (mendebaldean) eta Kai Aurreratuaren (ekialdean) artean.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 240 m. – Zabalera: 10/34 m. – Sakonera: 5 m.
- **Guztizko azalera:** 7.300 m²
 - â **Gordailu estalia:** 4.100 m²
 - â **Biltegi estalia:** Ez du.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** 12 t-ko 3 portale-garabi, Portu Agintaritzaren jabetzakoak.
- **Trenbide-zuzkidura:** Erabiltzen ez diren trenbide batzuk daude maniobra-zonaren ondoan. Atzealdean, portu osoa komunikatzen duen trenbide bat dago.
- **Destinoa:** Txatarra eta salgaiak oro har.
- **Ahalmen teorikoa:** 3.000 t/ml., urteko 720.000 tonaren baliokidea (720.000 t./urte).
- **Aurreikusitako erabilerak:** Kai honen berehalako zolatzeari eta biltegiratzearen hobekuntzari esker, salgaietara (oro har) destinatu ahal izango da.

Molinaoko kaia

- **Kokapena:** Buenavistako kaiaren (ekialdean) eta Kaputxinoetako kaiaren (ipar-ekialdean) artean.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 313 m. – Zabalera: 42/90 m. – Sakonera: 10 m.
- **Guztizko azalera:** 24.200 m²
 - â **Gordailu estalia:** 15.400 m²
 - â **Biltegi estalia:** 2.520 m²
1000 m². Kaiaren bigarren ildoan.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** 12 eta 16 t-ko 2 portale-garabi, jabetza partikularrekoak.
45 t-ko garabi automobil 1, jabetza partikularrekoa.



- **Trenbide-zuzkidura:** Amilburuaren ondoko trenbideak, Buenavistako kaiarekin (mendebaldean) eta Kaputxinoetako kaiarekin (ekialdean) lotzen direnak. Kontserbazio-egoera txarrean daude. Lotura orokorreko trenbide bat atzealdean.
- **Destinoa:** Karga orokorra (txatarra eta produktu siderurgikoak bereziki).
- **Ahalmen teorikoa:** 4.500 t/ml., urteko 1.400.000 tonaren baliokidea (1.400.000 t./urte).
- **Aurreikusitako erabilerak** Kai honen erabilera, funtsean, txatarraren eta produktu siderurgikoen trafikoari lotuta egongo da. Aurreikusitakoaren arabera, gehikuntza jarraitu bat izango du (produktu siderurgikoen kasuan bereziki).

Kaputxinoetako kaia

- **Kokapena:** Molinao kaiaren (hego-mendebaldean) eta Petrolio kaiaren (ipar-ekialdean) artean.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 298 m. – Zabalera: 60/84 m. – Sakonera: 10 m.
- **Guztizko azalera:** 22.000 m²
 - â **Gordailu estalia:** 9.000 m²
 - â **Biltegi estalia:** 4.500 m² Produktu siderurgikoetarako.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** 16 t-ko portale-garabi 1.
30 t-ko portale-garabi 1.
50 t-ko garabi automobil 1, jabetza partikularrekoa.
Magnesitas de Navarra-ren uhal garraiatzailea.
Cementos Rezola-ren instalazio pneumatikoak eta ponpaketa-instalazioak, 125 eta 200 t./h-ko ahalmenarekin.
Repsol Asfalto-ren ponpak (200 t./h-koak).
Koipe-ren landare-olioko ponpak (6.000 m³-koak).
- **Trenbide-zuzkidura:** 3 trenbide amilburuaren ondoan, ihesbiderik gabe. Portuko adar nagusiarekin lotzen den ihesbiderik gabeko trenbide bat atzealdean.
- **Destinoa:** Produktu siderurgikoak, bobinak eta txatarra.
- **Ahalmen teorikoa:** 3.750 t/ml., urteko 1.100.000 tonaren baliokidea (1.100.000 t./urte).



- **Aurreikusitako erabilerak:** Biltegi estali baten eraikuntza berriak eta produktu siderurgikoen inguruko aurreikuspenek, gaur egungo erabilera mantentzea aholkatzen dute.

Petrolio kaia

- **Kokapena:** Kaputxinoetako kaiaren (hego-mendebaldean) eta Ro-Ro kaiaren (ekialdean) artean.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 159 m. – Zabalera: 53/80 m. – Sakonera: 10 m.
- **Guztizko azalera:** 5.700 m²
 - â **Gordailu estalia:** Azalaren zatirik handiena petrolio-produktuetarako gordailuek okupatzen dute.
 - â **Biltegi estalia:** Ez du.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** 5 tutu-lerroko "manifoldak":
 - 14''-ko bat fuel-oliorako.
 - 12''-ko bat gas-oliorako.
 - 2 gasolinarako eta itsasoko uretarako (suteen kontrako zerbitzua).
 - 1 erreserban.
- **Trenbide-zuzkidura:** Ez du.
- **Destinoa:** Petrolio-produktuak soilik.
- **Ahalmen teorikoa:** Petrolio-produktuen arabera ezartzen da.
- **Aurreikusitako erabilerak:** Kai honen CLH, SA-ko faktoriarekiko mendetasunak eta faktoria laster Iruñera lekualdatzeko asmoak, epe laburrerako erabilera-aldaketa bat adierazten dute (ibilgailuen trafikora destina liteke).

Ro-Ro kaia

- **Kokapena:** Petrolio kaiaren hego-mendebaldean, Kaputxinoetako penintsularen iparraldeko muga.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 152 m. – Zabalera: 110/150 m. – Sakonera: 8 m.



- **Gutzizko azalera:** 48.600 m²
(Oiartzun ibaiaren ezker aldeko automobil-zabaldegia adskribitzen zaio).
- â **Gordailu estalia:** 48.600 m²
- â **Biltegi estalia:** Ez du.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** Hego-mendebaldeko ertzean, ur gaineko pontoi bat (ro-ro arrapalarekin).
Lehorrean, alboko karga eta deskargarako arrapala mugikor bat (altueran erregulagarria).
- **Trenbide-zuzkidura:** Ez du.
- **Destinoa:** Automobilak eta ro-ro trafikoa.
- **Ahalmen teorikoa:** 3.000 t./ml., urteko 450.000 tonaren baliokidea (450.000 t./urte).
Erabilera ia bakarria automobilen trafikorako erabilera denez gero, datu hau ez da erabili behar Pasaiako Portuaren ahalmenaren gutzizko kalkulu teoriko bat egiteko.
- **Aurreikusitako erabilerak:** Erabileraz aldatzeko iguripenik gabe.

Lezoko Merkataritza Area.

Alderdi fisikoak

Lezoko Merkataritza Areak, Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko portu-lurrak eta Pasaiako Badiaren ipar-ekialdeko lurrak hartzen ditu.

Hegoaldean Errenteriako udal-mugartearekin egiten du muga (N-1 errepidean eta gaur egun eraikuntza-fase aurreratuan dagoen Errenteriako Saihesbidean). Ekialdean Lezoko udal-mugartearekin eta bere hirigunearekin egiten du muga eta iparraldean berriz, Lezotik Jaizkibel mendira doan errepidearekin. Antxoko Merkataritza Arearekiko harremana eta komunikazioa Oiartzun ibaiaren gaineko bi zubiren bitartez lortzen da. Zubi horietako bat, ibaian behe-rago kokatutakoa hain zuzen ere, automobilen trafikorako besterik ez da erabiltzen. Ibaian gorago kokatuta dagoena berriz, bide baten eta trenbide baten bitartez egiten den portuko komunikazio orokorrean barne hartuta dago. Azpimarratu beharra dago Area honetako portu-zona bere mugena baino maila txikiago batean kokatuta dagoela.

Areako azalaren banakatzea ondokoa da:

Azalera eraikia	6.920 m ²
Eraiki gabeko azalera	139.471 m ²
Gutzizko azalera	146.391 m ²



Kosta-lerroak 972 metroko luzera du guztira eta, alde batetik, Oiartzun ibaiaren eskuinaldea bideratzeko hormak eta Lezo-3 kaiko ro-ro arrapalaren instalazioek (batuta 373 m-ko azalera ematen dutenek) osatzen dute. Gainerako zatia aipatutako Lezo-3 kaiari eta Lezo-2 eta Lezo-1 kaiei dagokiena da, guztira 599 metroko luzera duena.

Kai guztien sakonera ez da berdina. Lezo-3 kaian 8 metrokoa da, hau da, ibilgailuen garraiorako porturatzen diren ontzi-mota orotarako nahikoa. Lezo-2 eta Lezo-1 kaietan berriz, sakonera 10 metrokoa da eta, bertan, Pasaiako Portuan sartzen diren zingo handieneko ontziek atraka dezakete.

Batez besteko zabalera teorikoa, guztizko azalera (146.391 m²) atrakatzeko-kaiaren guztizko luzerarekin (599 m.) zatituta lortzen dena, 240 m. ingurukoa da. Hala ere, bere balioa erabat desitxuratuta dago Lezo-3 kaiari automobil-zabaldegiaren azalera gaineratu izanagatik. Azalera hori deskontatzen bada, kai-lerroa 76.000 m²-koa da eta, beraz, emaitzazko batez besteko zabalera teorikoa 126 m-koa, hots, portu-eragiketa eraginkor baterako urria. Lezo-3 kaiari erantsitako azalera nahikoa da automobilaren karga eta deskargarako eta ro-ro trafikorako.

Lezo – 3 kaja

- **Kokapena:** Oiartzun ibaiaren bokalearen eta ipar-ekialdeko Lezo-2 kaiaren artean.
- **Ezaugarriak:** Luzera: 151 m. – Zabalera: 40/100 m. – Sakonera: 8 m.
- **Guztizko azalera:** 62.300 m² (Oiartzun ibaiaren ezker aldeko automobil-zabaldegia adskribitzen zaio).
 - â **Gordailu estalia:** 59.000 m²
 - â **Biltegi estalia:** Bigarren lerroan. 2.100 m².
 - â **Instalazioak:** Kamioiak pisatzeko bi baskula bigarren lerroan.
- **Karga eta deskarga baliabideak:** 2 ro-ro arrapalak, garabi-beso motakoa bata eta pontoikoa bestea, kaiaren ertz banatan.
- **Trenbide-zuzkidura:** Ro-Ro kaira doazen ihesbiderik gabeko 2 bide. Lezo-2 eta Lezo-1 kaietara jarraitzen dute eta Errenteriako geltokiarekin lotuta daude tuneleko sarbidearen bitartez.
- **Destinoa:** Automobilak eta ro-ro trafikoa.



- **Ahalmen teorikoa:** 3.000 t./ml., urteko 450.000 tonaren baliokidea (450.000 t./urte). Erabilera ia bakarra automobilen trafikorako erabilera denez gero, datu hau ez da erabili behar Pasaiaiko Portuaren ahalmenaren guztizko kalkulu teoriko bat egiteko.
- **Aurreikusitako erabilerak:** Ez da erabilera-aldaketarik aurreikusten eta, beraz, ibilgailuen trafikora destinatuko da funtsean, egun bezalaxe.



III.07.

GINEZKOEN ETA BIZIKLETEN ESPAZIO PUBLIKOA BERRESKURATZEA. APARKALEKUAK.

III.07.01. Jarduketa-esparru estrategikoa

2001ean egindako Errenteriako Trafikoari eta Aparkalekuari buruzko Azterlanean ondoko helburu zehatzak planteatzen dira:

- * Egoiliarrentzako aparkaleku-eskaintza handitzea.
- * Txandakako aparkaleku-eremua zabaltzea.
- * Trafikoaren arintasuna hobetzea.
- * Istripu-kopurua murriztea.
- * Oinezkoen joan-etorriak hobetzea.
- * Oinezkoentzako kaleen azalera handitzea.
- * Garraio publikorako hurbilerraztasuna hobetzea.

Helburu hauek ondoko estrategietan barne hartuta daude:

1. Bide-sistemaren eraginkortasuna handitzea.
2. Automobilaren eragin negatiboak arintzea.
3. Automobilerako alternatiba bideragarriak sustatzea.

III.07.02. Aparkaleku-politika.

Egoiliarrentzako aparkalekua, diagnostikoan egiaztatu bezala, defizit handiko egoera batean dago. Beharrezkoa izango da egoiliarrentzako aparkalekuak eraikitzen jarraitzea -lur azpikoak edo eraikuntzakoak-, bizilekutik 100-150 metroko gehieneko distantzian. Horrek ordea, hiri-espazioaren doako gozamenari buruzko eztabaida planteatzen du eta, ondorioz, biztanleak kontzientziatu egin beharko dira aparkalekua automobilar datxekion kostu bat dela (bai garajeen, bai espazio publikoan).

Funtsezko gomendio bat, hirigintza-arauetan etxebizitza bakoitzeko garaje-kopuruari dagokion ratioa definitzea da. Horrela, beharrezkotzat hartzen da ratio hau pixkanaka handitzea (etxebizitza bakoitzeko bi plazara bitartean bizileku-sektore berrietan). Horren asmoa, etxebizitza berrien eragin-zonaren hasierako defizita neurri batean orekatu ahal izatea da.



Txandakako aparkalekuari dagokionez, aparkaleku arautuko zonak zabaltzea planteatzen da eta erregulazio-sistema malgu eta autobetegarri bat aurkezten da. Sistema berriak dakartzan alde onak, laburbilduta, ondokoak dira:

- Nolabaiteko berehalakotasuna zerbitzuan jartzeko.
- "Ondasun urri" bat banatzeko ekitatea.
- Beste area batzuetara zabaltzeko eta baldintza aldakorrei egokitzeko malgutasuna.
- Kudeaketa eta kontrol malgutasun handia oinarritzko bi parametroak aldatuta: kontrolaldia eta tarifa-kostua.
- Aparkaleku-plaza gehiago egoiliarrentzat.
- Txandakako aparkaleku gehiago kanpotarrentzat eta udalerriko gainerako biztanleentzat.

Sistemaren bilakaerari begira, zehaztu beharra dago saturazio-egoera orok ezkutuko eskari bat dakarrela eta eskari hori eskaintza handitzen denean agertzen dela. Hau da, aparkaleku-plazen kopuru handiagoak eskariaren igoera ekar dezake eta, horrela, ustiapen-emaitez orekatu egingo dira.

III.07.03. Bide-politika.

Egindako proposamenak ondoko ardatzen ingurukoak dira:

- Bide-berrantolamendua. Biteri kalea oinezkoentzat egitearen ondoriozko berrantolamendua bideratu da garraio-ereduaren bidez. Horrek hainbat fase martxan jartzea eskatzen du.
- Trafikoaren lasaitzea. Trafikoa lasaitzeko hainbat neurri proposatzen dira ondokoak errazteko hain zuzen ere:
 - Errenterian gehien egiten diren joan-etorriak.
 - Automobilien zirkulazioa (bere eragin negatiboak arinduz).
 - Istripu-kopuruaren murriztapena.
- Hirigunea zeharkatu gabe Saihesbiderako sarbidea erraztuko duen seinaleztapena.



III.07.04. Garraio Publikoetarako politika.

Hiru neurri-mota planteatzen dira:

- Autobusen hiri-sarearen berrantolamendua.
- Trenbide eta autobus geltokietarako oinezkoentzako sarbideen hobekuntza, garraio publikoa erabiltzea automobil partikularra automatikoki jotzea baino gizarte-portaera onargarriagoa delako aitorten publikoaren adierazgarri gisa.
- Autobus-geltokiak diseinatzeko irizpideak.

III.07.05. Beste gomendio batzuk.

Hiri-plangintzaren arloan, Erreterian gaintitu beharreko erronka bat udalerrian bertan bizi den eta lan egiten duen biztanleriaren arteko oreka lortzea da, era honetan oinezkoen joan-etorriak sustatzen baitira. Aktibo hau bultzatzeko eta sustatzeko, beharrezkotzat hartzen dugu:

- Zerbitzuei eta dendei lotutako enpleguak erakartzea, ehun ekonomikoa aldatu egingo baita. Izan ere, zerbitzuek sortuko dituzte aurreikusita dagoen industria-enpleguaren murriztapenaren ondorioz (garrantzi ekonomikoa mantentzen bada ere) beharrezkoak izango diren enpleguak. Asmoa hirigunean bertan espazio eta lokal batzuk enpresa-inkubagailu gisa aurreikustea da. Izan ere, ez dago hirigunea bera baino parke teknologiko hoberik (bere garaian Erreteriarako industria-garapenaren lekuko izan zen).
- Ekonomia eta enplegu jardueren kokapena (hiriguneko hiri-zuntzari dagokionez).

III.07.06. Oinezkoentzako eta bizikletentzako bide-sarea.

Gaur egun, automobilak hiri-espazioan egiten duen presioa gehiegizkoa da. Ibilgailuen trafikoan agertzen den pilaketa eta moteltasuna hiri-ehunen gehiegizko dentsitatearen eta bilbearen egitura fisikoko arazoaren ondorioa da. Hori dela eta, gizakiaren eskalara egokitutako eragin txikiko beste komunikazio-alternatiba batzuk ezarri behar dira. Alternatiba hauek biztanleen bizi-kalitatea hobetu, beste aztura eta ohitura batzuk hartzeko aukera erraztu eta hiri-zona ikusgarriagoak sortuko dituzte.

Gaur egun, oinezkoentzako eta bizikletentzako motorizatu gabeko bide batzuk daude Erreterian, Lezo eta Oiartzungo udal-mugarteetan baina gehienek ez dute jarraitasunik eta hori eragozpen handia da erabiltzeko.

Zentzu honetan, komeni da azpiegitura luzatzea eta eskualde-mailako motorizatu gabeko benetako bide bat sortzea. Bide honek Oarsoaldeko udalerrira guztien arteko konexioa erraztuko du eta bizikleta garraiorako benetako alternatiba izatea ahalbidetuko du.



Garrantzitsua da bizikletentzako ibilbideek benetako jarraitasuna izatea, bestela garraio eta aisia modu ludiko hau erabiltzeko aukera ez bailitzateke hain erakargarria izango. Kontuan izan behar da bizikletaz horretarako bereziki prestatutako ibilbideetatik kanpo ibiltzea deserosoa eta arriskutsua izan daitekeela.

Bide hau, area naturalak zein hiri-zonak zeharka ditzakeen egitura bigun bat izango da. Bere ezaugarri nagusiak eragin txikia, kostu urria eta ezarpen erraza dira. Hala eta guztiz ere, bere zeregin egituratzailea garrantzitsua da, oinez eta bizikletaz baldintza egokietan eta oinezkoentzako espazioetan gabezia larriak dituen area batean desplazatzeko alternatibak errazten baititu neurri handi batean. Hortaz, komeni da azpiegitura bigun bat sortzea. Azpiegitura honek area naturalak eta hiri-zonak zeharkatuko ditu (oinezkoen eta bizikleten desplazamendua erraztuz eta benetako eskualde-sare bat sortuz), Oarsoaldeko udalerriekin konexio bat sortuko du (dauden tarteak lotuz eta beste batzuk ezarriz) eta aisia eta atseden zonak (hala nola kirol-zonak eta berdeguneak) eta dentsitate handiko hiriguneak lotuko ditu.

Oinezkoei lotutako estrategia dnarrizko alderdi bat da eta ingurune urbanizatuan bultzatu nahi da. Bi sare gainjarrita sortzea aurreikusten da, ibilgailuentzat bata eta oinezkoentzat bestea.

Ezarritako helburuak ondokoak dira:

- Errenterian sare bat sortzea eta, horretarako, tarteak eraztun moduan ezartzea eta eraikita daudenak lotzea.
- Eskualde-mailako motorizatu gabeko sare egituratzaile bat ezartzea Pasaiako Badiaren inguruko udalerrien arteko konexioa errazteko.
- Motorizatu gabeko bideen tarte eraikiak lotzea benetako egitura-sare bat sortzeko. Horrela, oinez eta bizikletaz desplazatzeko alternatibak bultzatuko dira. Eskualde-sarean barne hartuta daudenek lehentasuna izango dute.
- Eskola-instalazio, kirol-zona, berdegune eta herritarren aldetik eskari handiena jasotzen duten eremuekiko konexioa.



III.08. GARRAIO PUBLIKO ERAGINKORRA LORTZEA

III.08.01. Irizpide orokorrak.

Euskotren XXI Plan Estrategikoan, sozietate publiko horrek planteatzen dituen helburuei dagokienez, ondokoak adierazten dira, besteak beste:

- Aldiriko garraio kolektiboko zerbitzua bultzatzea (trenbide zein errepide bidezkoa). Izan ere, aldiriko zerbitzu egoki batek, zalantzarik gabe, garraio pribatua murrizten lagunduko du eta, beraz, trafikoaren egoera kezkarria arindu ahal izango da.
- Erkidegoko metropoli arteko konexioak bermatzea eta, azpiegitura berriek ahalbidetzen duten neurrian, erlazio horietan trenbidea sustatzea.
- Industria-eskualdeetan trenbide-garraioa sustatzea eta, horrela, unitate funtzional, ekonomiko, sozial eta kultural bat osatzen laguntzea.
- Autonomia Erkidegoan garraio-politikak garatzen eta gizartera proiektatzen aktiboki laguntzea.
- Trenbide-azpiegiturak eraginkortasunez kudeatuko dituen eta garraio-operadore integral gisa finkatuko den enpresa bat garatzea.

III.08.02. Euskotren sarea

Plan Orokorrak Euskotren Sareari dagokionez planteatzen dituen helburuak bat datoz Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak onartutako Trenbide Sarearen LAPean adierazitakoekin.

“Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila etengabe egiten ari den azterlanek eta metatutako nazioarteko esperientziak argi erakutsi dute EuskoTrenen trenbide sarea garrantzi handikoa izango dela eskualderako hamar urte barru. Izan ere, errepideetako pilaketa hazkorak autobus sarea trenerantz bideratuko baitu eta, ondoren, hiri guneeetako ibilgailuaren erabilera mugatzeko neurriak hartzea beharrezkoa izango denean, orduan, trena ezinbestekoa izango da eta”.

“Ondorioztapen orokor honek honako jarduera ildo zehaztarazten du: “Gaur egun euskal trenbide sarea osatzen duten linea, zerbitzu eta geltokiak mantentzea”. Ikuspuntu horri atxikiz, uler daiteke ezin zaiola zerbitzua kendu sareari loturik dagoen ezin guneri, ez eta mantenimendu barik ere trenbide sareko ezin tarteunerik. Horrek esan nahi du aktiboak mantendu egingo direla errepideetako pilaketak (hiriburuetakoak ez ezik, gainerako guneeetakoak ere) mugikortasun beharrezkoan asetzeko trena ezinbesteko bilakarazten duenerako. (Prozesu hori gertatu da dagoeneko Europako iparraldeko herrialde askotan eta



egiazatu egin da trenbidearen aukera zaindu ez zen kasuetan hura berreskuratzea, posible izan denean, oso garestia izan dela)".

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak planteatutako trenbide-jarduketaren planteamendu estrategikoa ondoko puntuetan labur daiteke:

- ✓ *Hiri-inguruko merkatuen eskaintza handitzea: era honetan, zerbitzua hiriburuetako inguruen pixkanakako saturazioaren ondorioz eskaria handiagoa deneko puntuetan kontzentratu nahi da.*
- ✓ *Trenbide-eskaintzaren kalitate-atalase egoki batzuk ezartzea. Erlazio ertainetarako 30 minutuko eta hiri-inguruko erlazioetarako 15 minutuko gutxienezko tarteak planteatzen dira. Tarte hauek, eskariaz kanpo geratzen diren baina etorkizuneko protagonismoan oinarrituta lortu nahi den kalitatearekin bat datozen eskaintza-mailak dira.*
- ✓ *Trenbidearen aukera etorkizuneko ezinbesteko bide gisa mantentzea: hiriburuetarako aurreikusten diren pilaketa-mailen ondorioz, trenak funtsezko leku estrategiko bat betetzen du bide-pilaketaren ondorioei aurre egiteko alternatiba gisa. Hortaz, bere ondareak zerbitzu-antolamendu gisa zaindu behar dira (horien artean, egungo trazaduraren jarraitasuna -korridore gisa-azpimarratu behar da).*
- ✓ *Eragin-zonaren hedapena Erakarpen Eremuan hobekuntzak egitearen bidez: jarduketa kritiko gisa, geltokien eragin-erradioa handitzea planteatzen da. Horretarako, oinezkoentzako hurbilerraztasunean hobekuntzak egin, bizikletentzako hurbilerraztasuna barne hartu eta eskemak ezarriko dira (tarifa bidez koordinatutako autobus-biltzaileekin).*

Fase hauek guztiak, proposamenen bideragarritasuna baldintzatu dezaketen alderdi guztiak pixkanaka kontuan hartuko dituen prozesu ireki baten ondorioz ezarriko dira. Oinarrizko helburu gisa, ustiapenak ibilbideei zein maiztasunei dagokienez arrazionalizatzea eta sinplifikatzea eta eskaintza Donostiako "aldirietan" (Zumaian eta Irunen) oinarritzea ezartzen da.



III.09. INGURUMENA BABESTEA

III.09.01. Alderdi orokorrak

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren Arrazoi Azalpenean adierazten denez, *“guztien borondatea zehazteko premiatik sortu da, ingurugiro-politikaren helburu komunak hierarkizatu, eskumenak antolatu eta horretarako prozedura eta baliabide egokiak diseinatuko direlarik. Azken finean, ingurugiro-baliabideen babes-erregimena finkatzea, ingurugiroan eragina duten jarduerentzat Administrazioaren parte-hartzea arautzea (zigor-erregimena barne) eta epe labur, ertain eta luzera bizi garen gizartean ingurugiro-babesarentzat eredu bideragarri berriak sustatzea nahi du”*.

Legearen Hirugarren Tituluak, ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua arautzen du eta poluzioaren kontrol bateratuaren printzipioa sartzen du. Bestalde, ingurumenarekiko eraginaren ebaluazioari buruzko kapituluak, Legearen Eranskinean zerrendatzen diren planak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz ingurumenak jasan ditzakeen ondorioak zenbatesteko aukera emango duen sistema bat diseinatzen du.

III.09.02. Agenda 21

Agenda 21 izenekoaren esparruan, udalerrri honen errealitate integralari (ingurumen, ekonomia eta gizarte errealitateari) buruzko txosten diagnostiko bat egin da. Horretarako, gizarte jasangarri orok lortu beharreko jasangarritasun-irizpideak edo oinarrizko printzipioak hartu dira erreferentzia gisa.

Etorkizuneko jarduketa-helburuak finkatzen dituzten jasangarritasun-irizpideak ondokoak dira:

1. Baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez erabil daitezten sustatzea.
2. Ingurunearen karga eta eraberritze ahalmena ez gainditzea.
3. Giza garapenak inguruneak behar duen errespetuari egokitzea.
4. Herritarren eta sistema naturalen arteko erlazioa erraztea.
5. Hiri-plangintza egitean lurzoruaren erabilera jasangarri batzuen alde egitea.
6. Pertsona guztiei mugikortasuna eta zerbitzuetarako hurbilerraztasuna bermatzea.
7. Ekonomia indartsu eta dibertsifikatu bat sustatzea.
8. Pertsonen gizarteratzea eta berdintasuna bultzatzea.
9. Bizi-kalitate ona bermatzea.
10. Herritarrak udalerriarekin zerikusia duten erabakietan parte hartzera bultzatzea.
11. Udal-kudeaketa ona egitea.